OSASUNGOA EUSKALDUNTZEKO ERAKUNDEA

OEEberri

2013-01-24 - 18. alea

“Haurtzarotik Gaztarora...” Biltzarrerako komunikazioak otsailaren 15era arte aurkeztu daitezke

OEEren 23. Osasun Biltzarrean komunikazioak aurkezteko epea zabalik dago eta otsailaren 15ean amaituko da.

Aurtengo gaia *Haurtzarotik Gaztarora*... izango da. 2013ko maiatzaren 10 eta 11n, Iruñeko NUPeko Osasun Ikasketen Unibertsitate Eskolan.

Biltzarrak ondorengo hiru mahai-inguruak izango ditu oinarri: E*torkizuneko osasuna sustatzen, Zer du nire seme-alabak* eta *Konponbide bila.* Animatu eta bidali zure komunikazioa! http://www.oeegunea.org/biltzarrak/komunikazio_jarraibideak

Bizkaiko Medikuen Elkargoak mahai-inguru eta tailer bana antolatu du otsailean

Bizkaiko Medikuen Elkargo Ofizialean Internet Kontsultarako Laguntza Tailerra antolatu da, baita honako mahai-ingurua ere: Boloniaren Eragina Medikuntzako Ikasketetan. Jarduera bietarako izena emateko epea zabalik dago.

Mahai-ingurua otsailaren 7an izango da, arratsaldeko 6etan, eta tailerra otsailaren 26an, 15:30etik 19:30era.www.oeegunea.org

Ugarteburu Terminologia Jardunaldiak V

Jardunaldi hauek, bosgarren aldiz egin dira, urtarrilaren 23an eta 24an Bizkaia Aretoan.

2013ko hauek Ugarteburu Terminologia Jardunaldiak (V), “Terminologia naturala eta terminologia planifikatua” euskararen normalizazioari begira izendatu dira. Mercé Lorentek, Pompeu Fabrako irakasleak, emango die hasiera *Terminología in vivo y variación funcional* hitzaldiarekin. Berau izango da sarrera hitzaldia.

http://www.oeegunea.org/berriak/ikusi/2013-01-16/ugarteburu-terminologia-jardunaldiak-v

OEEko lehendakariak Osasun Jakintza alorreko 3. Mitxelena Saria irabazi du

EHU eta Euskaltzaindiaren arteko Hitzarmenaren arabera, erakunde hauek bi urterik behin euskarazko doktorego-tesien Koldo Mitxelena sarietarako deia egiten dute. Honen helburua euskaraz egindako ikerketa bultzatzea da.

Karlos Ibarguren, OEEko lehendakaria, Osasun Zientzien arloko irabazlea izan da. Euskarazko tesi horien ekarpena bikoitza da. Batetik, jakintza sakontzea eta zabaltzea ahalbidetzea eta bestetik, euskararen normalizaziorako ezinbesteko laguntza ekartzea. http://www.oeegunea.org/berriak/ikusi/2013-01-18/oeeko-lehendakariak-irabazi-du-osasun-zientzien-jakintza-alorreko-euskarazko-tesien-3-koldo-mitxelena-saria

Eusko Jaurlaritza berriaren osasun-arloko euskararen erronkak

OEEk osasun-alorrean ditugun euskararen gabeziak azaltzeko batzar bat eskatu dio gobernu berriari. Txosten labur bat prestatu da OEEren ikuspuntutik konpondu beharreko gaiak bilduz, eta lehentasunen arabera jaso dira gai hauek.

Gaien zerrenda, zoritxarrez, luzeegia da: Osabidetik pazienteentzat inprimatzen diren tratamendu eta aholkuak (dietak, probetarako jarraibideak…) behingoz euskaraz egotea, langile eta paziente euskaldunen identifikazioa, %60tik gorako gune euskaldunetan langile guztiak euskaldunak izan daitezela, sentsibilizazioa lantzea, etab.

Osakidetzak ez du aurreikusten orain arteko aplikazio informatikoak euskaratzea

Aramaioko Aitor Montes medikuak egindako eskaera bati erantzunez, Osakidetzak adierazi du ez duela Osabide euskaratzeko asmorik. Izan ere, «diru aldetik bideragarria» ez dela argudiatu dute. Hau da, aurrerantzean ere gaztelania hutsean egongo da Osakidetzako osasun-profesionalek erabiltzaileen osasun-arazoak jasotzeko erabiltzen duten sistema informatikoa. Azken hilabeteetan, hainbat medikuk eta osasun-profesionalek lanabes hori euskaratzeko eskatu dute. Info. gehiago: http://www.oeegunea.org/berriak/ikusi/2013-01-15/osakidetzak-ez-du-aurreikusten-orain-arteko-aplikazio-informatikoak-euskaratzea

Lourdes Unzuetak, OEEko bazkideak, Bidaia eta Mendi Kroniken saria irabazi du

BERRIAk antolatutako Bidaia eta Mendi Kroniken lehen saria irabazi du Unzuetak *Gata lurmuturretik, agata harribitxitik* lanarekin.

Almeriako Gata lurmuturrera egindako bidaiaren ondorio den lan honi esker Tirolgo Otzal Alpeetan zortzi eguneko zeharkaldia irabazi du OEEko bazkideak.

Saria Berriako zuzendari den Martxelo Otamendi eta Xabier Erro Mendiak eta Herriak elkarteko mendi gidariaren eskutik jaso zuen.

http://www.oeegunea.org/berriak/ikusi/2013-01-23/lourdes-unzuetak-oeeko-bazkidea-bidaia-eta-mendi-kroniken-saria-irabazi-du

OEEk agenda sartu du bere webgunean

Hilabete honetan www.oeegunea.org webgunean ekitaldi eta jardueren agenda zabaldu dugu. Bertan, OEEk zein euskara eta osasunarekin lotuta dauden bestelako erakundeek antolatutako ekitaldi eta jardueren berri emango da. Esaterako, 23. Biltzarreko komunikazio eta inskripzio epeak bertan agertzen dira.

- **Parte hartu:** Anima zaitez berripapererako ekarpen eta albisteak bidaltzen
- **Jaso:** OEErekin harremanetan jartzeko beste e-posta bat erabili nahi baduzu, edo berripaper hau jaso nahi ez baduzu, jakinarazi mesedez
- **Idazkaritza:** 944 042 720 - oee@oeegunea.org - www.oeegunea.org